



## XXXXX ELKARGO OFIZIALAK ELKARGOKO KIDEEEN FITXATEGIARI BURUZ EGIN DITUEN GALDEREN GAINEKO IRIZPENA.

### AURREKARIAK

**LEHENENGOA:** 2012ko ekainaren 28an XXXXX Elkargo Ofizialeko lehendakariak eta idazkariak bidalitako kontsulta-idazki bat jaso genuen Datuak Babesteko Euskal Bulegoan. Idazki horren bidez, goian aipatzen den gaiari buruzko txostena eskatzen zen.

**BIGARRENA:** Hona hemen idazkiak zioena:

*“Herritarrek alta-eskabide bidez euren datuak ematen dizkigunean, gure Gobernu Batzordeak alta onartu eta gero, herritarrei jakinarazi egiten zaie datuak elkargokideen fitxategian jasoko dituztela eta aurrerantzean izango dituzten eskubideen berri ere ematen diegu. Era berean, herritarrek baimena ematen digute datuak XXXXX Elkargoen Kontseilu Nagusiari lagatzeko, Kontseilu Nagusiak egiten dituelako elkargokide txartelak eta erroldak kudeatzen dituelako.*

*Honi atxikita doakizuen dokumentuak adierazten duenez, Kontseilu Nagusiak elkargokideen fitxategi bat du errolda kudeatzeko, eta fitxategiaren helburu bakarra da errolda kudeatzea.*

*Baina orain helarazi diguten idazki batek dio jada ez dela behar elkargokideen adostasunik horrelako datuak lagatzeko.*

*Hona hemen gure galderak. Espero dugu argituko dizkiguzuela.*

*- Nor da datuen fitxategiaren arduraduna? Elkargoa, berak biltzen eta onartzen dituelako elkargokideen altak ala Kontseilua, txartelak egiteko jasotzen dituelako datuak?*

*-Kontseiluari datuak lagatzeko adostasuna behar da nahitaez?*

*- Esan egin behar diegu gure elkargokideei haien datuak Kontseilu Nagusiari lagako dizkiogula? Eta zertarako lagako dizkiogun?*

*-Kontseilu Nagusiak nola erabil ditzake elkargoak utzitako datuak? (Adibidez, elkargokideei publizitatea bidal diezaiekete, zerbitzuak eskain diezaiekete...?).*

**HIRUGARRENA:** Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legearen



17.1 artikuluko n) letrak honako eginkizuna esleitzen dio Datuak Babesteko Euskal Bulegoari:

*“Lege honetako 2.1 artikuluko herri-administrazioek, erakundeek eta korporazioek datu pertsonalen babesari buruz egiten dizkioten galderei erantzutea, eta lege honen aplikazioaren pean dauden datu pertsonalen tratamenduari buruz beste pertsona fisiko edo juridiko batzuek egiten dizkioten galderei erantzutea.”*

Beraz, goiko arau hori kontuan hartuta, Datuak Babesteko Euskal Bulegoari dagokio egin diguten galderari erantzuteko txostena egitea.

## KONTUAN HARTZEKOAK

### I

Kontsulta egileak egin dizkigun lau galdera zehatzei erantzuteko komenigarria izan daiteke ikustea zer nolako izaera duen kontsulta egilearen erakundeak, ahalik eta ondoen erantzuteko.

Elkargo profesionalak administrazio publikoen antzeko lege estatutua dute, baina zuzenbide publikoaren arloko eskumenak garatu ahal dituztelako baino ez. Horregatik, autonomia erkidegoetan kokatutako lanbide elkargoek zuzenbide publikoko eskumenez baliatzea dakarten jarduerak egiten badituzte, eta horiek egiteko datu pertsonaldun fitxategiak eta tratamenduak erabiltzen badituzte, fitxategi horiek titulartasun publikoko fitxategizat joko dira eta ez dira joko titulartasun pribatukotzat.

Beraz, garrantzi handiko kontua da ondo argitzea elkargoek haien jardueran erabil ditzaketen fitxategien eta tratamenduen jarduera publikoaren eta pribatuaren arteko muga.

Hona Auzitegi Nazionalaren 2007ko ekainaren 12ko Epaiak ematen duen azalpena:

*“Elkargo profesionalak administrazio korporatiboaren barruan daude. Esan behar da administrazio korporatiboek bere baitan biltzen dituztela, oinarrian interes pribatuak izan arren, profil publiko argia duten izaera mistoko erakundeak. Horregatik esaten da administrazio korporatiboak erakunde pribatuen eta erakunde publikoen arteko muga-erakundeak direla. Administrazio korporatiboaren izaera mistoak lege-erregimen berezia eskatzen du, hau da, lege-erregimena ere mistoa, zuzenbide publikoko arauekin eta izaera pribatuko beste batzuekin.*

*Konstituzio Auzitegiak maiz eman izan du halako erakundeen izaerari buruzko iritzia. Hona hemen, adibidez, 1988ko otsailaren 18ko KAEk dioena:*

*“Auzitegiak lehenago ere esan duenez (abuztuaren 5eko 76/1984 KAE, otsailaren 20ko 23/1984 KAE eta uztailaren 15eko 123/1987 KAE), elkargo profesionalak korporazio sektorialak dira eta elkargoko kideen interes pribatuak babesteko eratzen dira batez ere. Baina, interes publikoko helburuak ere badituzte; bestalde, horretan oinarrituta*



*eratzen dira legez pertsona juridiko publiko gisa edo zuzenbide publikoko korporazio gisa; eta elkargo profesionalen antolaketa eta funtzioak finkatzeko ez da kontuan hartzen bakarrik elkargoko kideek nahi dutena; aitzitik, legegilearen nahitaezko izendapenak hartzen dira kontuan beste ezer baino lehen; eta legegileak, oro har, lurralde administrazioek dituzten berezko eginkizunak esleitzen dizkie; edo, bestela, lurralde administrazioei aukera ematen die elkargoen lankidetzak eskatzeko administrazio eskumenen eskuordetzen bidez. Eta horrek guzti horrek lurralde administrazioen menpe edo babespean jartzen ditu elkargoak, eta lurralde administrazioak dira elkargoei gauzatzen dituzten eskumenen edo funtzioen titularrak.”*

*Garbi dago elkargoko kideen interes pribatuak babestea dela elkargo profesionalen helburu behinena; baina, hala ere, elkargoen izateak badu alderdi publiko bat ere, alde batetik, elkargoen sorreratik bertatik datorrena —Estatuaren botere-egintza batetik— elkargoen egitura organikoen funtzionamendua arautuz; eta, bestetik, elkargoei helburu edo eginkizun publikoak esleiztetik datorrena: Konstituzio Auzitegiak dioenez, lurralde administrazioen berezko eginkizunak gauzatzean datza edo, bestela, lurralde administrazioekin lankidetzan aritzean haien berezko eginkizunak burutzen.”*

Oro har, esan daiteke otsailaren 13ko 2/1974 Legearen 1.3 artikulua xedatzen duela elkargo profesionalen eginkizunak behinenak honakoak direla: “lanbideen jardura antolatzea, lanbideen ordezkartza eskusiboa egitea eta elkargokideen lanbide interesak babestea”.

Tituludun lanbideei eta profesionalen elkargo eta kontseiluei buruzko Eusko Legebiltzarreko azaroaren 21eko 18/1997 Legearen 24 b) artikulua arabera, elkargoen berezko eginkizuna da “Lanbidean nola jardun arautzea, dagokion esparruan eta indarrean dagoen legediaren barruan”

Azpitarratu behar da artikulua horren j) letrak xedatzen duela elkargoen bestelako eginkizunetako bat dela administrazio publikoekin lankidetzan aritzea guztien intereseko kontuetan.

Azkenik, n) letrak bukaera orokor bat du eta han xedatzen denez, lanbiderako mesedegarriak diren eta elkargoaren helburuak betetzera daramaten gainerako beste eginkizun guztiak ere gehitzen ditu elkargoen eginkizun moduan.

Beraz, oro har esan daiteke datu pertsonalen fitxategi / tratamendu batzuk elkargoei duten izaera publikoarekin lotutako eginkizunekin zerikusia dutela eta elkargoen zuzenbide publiko eskumenekin lotuta daudenez, administrazioaren lege erregimenaren menpe daudela.

## II

Azaldu berri dugun esparrua hartu behar dugu kontuan galderei erantzuteko. Hasteko, argitu behar dugu nor den fitxategiaren arduraduna: elkargoa ala Kontseilua.



Erantzun aurretik, zailtasun bat aipatu beharrean gaude: ez dakigu zehatz-mehatz zein fitxategiri buruzkoa den galdera.

Hain zuzen ere, kontsulta-idazkiak "lan egiteko era" azaltzen duen atalean "elkargokideen fitxategia" aipatzen du. Gure ustez, zailtasunaren jatorria da elkargo kontsulta-egileak ez duela datu fitxategi batik erregistratu DBEBn (Datuak Babesteko Euskal Bulegoan), eta ez dugu horri buruzko ezer argitaratuta aurkitu Gipuzkoa Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean.

Beraz, esan daiteke elkargo kontsulta egileak ez duela sortu berak aipatzen duen fitxategia, ez behintzat datuak babesteko araudiak agintzen duen moduan. Hori dela eta, DBEBk ezin du jakin zein den fitxategiaren helburua, egitura, zein lagapen aurreikusi dituen ... Hau da, Bulegoak ez daki zein ezaugarri dituen fitxategiak, eta ez daki elkargoak fitxategi bakarra ala gehiago dituen.

Egoerak eskatzen duen zuhurtziarekin, eta pentsatuta fitxategiaren helburuek lanbidearen antolakuntzarekin loturako gaiekin izango dutela zer ikusia, ondoriozta dezakegu (Datu Pertsonalak Babesteari buruzko Lege Organikoak eta Legea garatzen duen erregelamenduak fitxategiaren arduradunaren kontzeptuaz dioena kontuan hartuta: "*pertsona fisikoa nahiz juridikoa, publikoa nahiz pribatua edo administrazio organoa da, tratamenduaren helburua, edukia eta erabilerak erabakitzen dituen*") hasiera batean behintzat ez dugula ikusten elkargoak emandako azalpenean eragozpenik elkargoak berak erabaki ditzan elkargokideen delako fitxategiaren helburuak, erabilerak eta datu pertsonalen tratamenduak.

Hori hala izanik, esan daiteke elkargoa dela dena delako fitxategiaren arduraduna.

Gainera, esan beharrean gaude Kontseiluaren zirkularrean azaldutako argudioek ez dutela hori aldatzen; nahiz eta zuhurtzia handiz esaten dugun hala dela, BDEBk ez duelako eskumenik Kontseiluaren fitxategien gainean eta ez dakielako zer uste duen Datuak Babesteko Espainiako Agentziak zirkularrari buruz; bestalde, zirkularrak aipatu ere ez du egiten kontsulta egin duten ala ez.

Edozelan ere, zirkularrak bai dio honakoa: "*... elkargoetako eta Kontseilu Nagusiko fitxategietako datu pertsonalak datu base integratuak osatzen dituzte, hau da, datu base bakarra osatzen dute*".

Baina, Bulegoak, zuhurtziaz eta kontu handiz jokatu eta Kontseilu Nagusiarekiko erabateko begiruneaz, esan behar du ez datorrela bat baieztapen horrekin.

Hona hemen arrazoiak:

Kontseilu Nagusiak dio Elkargo Profesionalei buruzko Legearen hirugarren xedapen gehigarrian (Zerbitzu Jardueretan aske sartzeari eta aritzeari buruzko Legeari egokitzeko zenbait lege aldatzen dituen abenduaren 22ko 25/2009 Legearen 5.16 artikulua dakarren idazkera kontuan hartuta) ikusten duela baieztapen horren jatorria.

Halaxe da. Hirugarren xedapen gehigarriak dioenez, elkargo antolakundea "... lanbide bereko elkargo korporazioen multzoa dela". Baina, horrek ez du esan nahi



zirkularrak dioena hala denik: *“datu pertsonalen tratamenduen ondorioetarako, datuen erregistroa erregistro integratu bat eta bakarra denik, eta ez desberdina”*.

Lehendabizi, azpimarratu behar dugu elkargo korporazio bakoitzak nortasun juridiko propioa duela. Hala dela esan daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Merkataritza Agenteen Elkargoen eta Elkargoaren Kontseilu Nagusiaren Estatutuen 4. artikulua ikusita; izan ere, horren arabera, elkargo era bakoitzak eta Kontseiluak “ bakoitzak bere nortasun juridikoa eta bere helburuak lortzeko erabateko gaitasuna du”.

Espainiako Merkataritza Agenteen Elkargoen eta Kontseilu Nagusiaren Estatutu Orokorren 28. artikulua ere dio Kontseiluak ere "nortasun juridikoa eta bere helburuak lortzeko erabateko gaitasuna duela”.

Hori hala izanik, nabarmena da elkargoak fitxategiak sortzea eta fitxategietan dauden datu tratamenduak egitea erabakitzeko erabateko gaitasuna duela elkargoak dituen eginkizunak burutzeko, eta ez da ikusten zer ikusi zuzenik dutenik Legearen hirugarren xedapen gehigarriaren testu berriak eta erregistro integratu bat eta bakarra ego beharrak.

Legearen testuan ez dago horri buruzko aurreikuspenik; beraz, egun bertan hitzez hitz idatzitakotik ere ezin da ondorioztatu fitxategi bat eta integratua behar denik.

DBLOk eta legea garatzen duen araudiak ez dute inon aipatzen "Erregistro (edo fitxategi) integratua" kontzeptua. Beraz, oso zaila da egiten zaigu kategoria hori interpretatzea, Bulegoak ez baitu ondo ulertu Kontseiluak aipatzen duen figura hori zer den.

DBLO garatzeko Erregelamendua onartzen duen abenduaren 21eko 1720/2007 Errege Dekretuaren 57. artikulua xedatzen du "Fitxategiaren arduradun bat baino gehiago baldin badago”:

*“Sortu beharreko fitxategia aldi berean pertsona edo erakunde bat baino gehiagoren ardurapean baldin badago, pertsona edo erakunde bakoitzak eman beharko du fitxategiaren sorreraren berri, hartara, Datuak Babesteko Erregistro Nagusian inskriba dezaten edo, beharrezkoa bada, autonomia-erkidegoetako kontrol-aginteek sorturiko fitxategi-erregistroetan inskriba dezaten”*.

Baina Bulegoaren iritziz aurreikuspen horren helburua ez da gu aztertzen ari garen kasuan erabilgarria; izan ere, kasu honetan ez baita esaten arduradun bat baino gehiago dituen fitxategi bat denik, fitxategi integratua dela baino. Bestalde, Bulegoak uste du elkargo guztiak eta kontseilua ezin direla aldi berean arduradunak izan (X probintziako elkargoak ezin du Y probintziako elkargokideen gaineko erabakirik hartu).

Gainera, Datuak Babesteko Espainiako Erregistroan erregistratua dagoen Kontseiluaren fitxategian ez da horri buruzko aipamenik ere ageri.

Azkenik, Bulegoaren iritziz, Auzitegi Gorenak epaiketa aurreko zenbait gairi buruz egindako galderak ebatziz Auzitegi Gorenaren (2012ko otsailaren 8koaz ari dela



ulertu behar dugu) eta Europako Batasuneko Justizia Auzitegiaren 2011ko azaroaren 24ko epaietako tesiek ere ez dute Kontseiluaren tesia babesten.

### III

Bigarren galderak zalantzan jartzen du datuen titularren baimena behar denik datuak Kontseiluari lagatzeko.

DBLOk dio datu komunikazioa “Interesduna ez den beste pertsona bati datuak erakustea” dela, eta datu komunikazioaren lege erregimena oinarria 11. eta 21. artikuluetan dagoela jasota.

Hasteko, 21. artikulua dioenarekin hasiko gara. Kontuan hartzen badugu aztertzen ari garen kasuan balizko lagatzailea eta lagapen-hartzailea administrazio publikoak direla, hona dioena:

*“Administrazio publikoek haien eskumenez baliatzeko bildutako edo landutako datu pertsonalak ezin izango zaizkie komunikatu beste administrazio publiko batzuei bestelako eskumenez edo gai desberdinei buruzko eskumenez baliatzeko bada. Salbuespen bat dago eta da komunikazioa helburu historiko, estatistiko edo zientifikoetarako egitea”.*

Konstituzio Auzitegiak artikulua hori aipatu zuen —eta aipamenean guretzat oso interesekoa den alderdi batez aritu zen—, hau da, artikulua lehengo idatz-zatiko tarteki bat konstituzioaren aurkakotzat jo zuen, tarteki horretan xedatutakoak onartu egiten zuelako ez zela ukituaren baimenik edo adostasunik behar administrazioen artean datu-komunikazioak egiteko, nahiz eta eskumen edo gai bererako ez izan, eta baldin eta hala xedatzen bazuen fitxategia sortzeko xedapenak edo goragoko mailako beste xedapen batek; izan ere, legeak ez baitzuen argi zehazten zein zen administrazio publikoen artean eskumen edo gai desberdinetarako datu-komunikazioak egiteko adostasun eskubidearen helmena, eta egiten zuena zen adostasuna zein arauk ordezkari zezakeen esan; eta araua erregelamendu bat ere izan zitekeen. Hala eta guzti zere, Konstituzio Auzitegiak ez zuen argitu zein zen “bestelako eskumenez edo gai desberdinei buruzko eskumenez baliatzeko” adierazpenaren helmena honelako egoeretan: “administrazio publikoen arteko lagapenak direnean, baina hasierako datu-bilketaren helburuak izan beharrean beste batzuk direnean, eta ukituak hasiera-hasieran adierazitako adostasuna baino ez dagoenean” tartean.

Epai horrek “hasierako datu-bilketaren helburuak izan beharrean beste batzuk direnean” adierazpena jasoz gero, kontrol agintaritzek eta jurisprudentziak atera duten ondorioa izan da azken finean manu horrek dioela DBLOren II Tituluan jasotako datuak babesteko printzipioetako bat hartu behar dela aintzat: helburua.

Beraz, datu komunikazioaren xedea beste administrazio batek erabiltzea bada eta hasierako datu-bilketako helburu berarekin bildu eta tratatzeko badira, halakoetan ez da beharko interesdunaren adostasun edo baimenik. Aitzitik, datu komunikazioaren



xedea bada beste administrazio batek erabiltzea eta datu bilketako eta datu tratamenduko helburua barik beste baterako bada, halakoetan lege batek baimendu behar du edo interesdunaren baimena beharko da.

Administrazioen arteko lagapenei buruz, Auzitegi Gorenak Motordun ibilgailuen zirkulazioaren arloko erantzukizun zibilari eta aseguruari buruzko araudia onartzen duen urtarrilaren 12ko 7/2001 EDren 28.1 artikulua aztertzeko eman zuen 2002ko apirilaren 15eko Epaia oso argigarria izan zen. Artikulu horrek aurreikusten du Ekonomia Ministerioak eta Barne Ministerioak badutela haien fitxategietako datuak elkarri lagatzeko aukera, lehenak Aseguruaren Konpentsazio Partzuergoaren bidez. Epaiak dio *“Administrazio Publikoen arteko datu lagapenak edo komunikazioak babestuta daudela datuen titularrak datu-bilketa egiteko eta datu horiek tratatzeko hasieratik ematen duen baimenarekin, baina, baldin eta fitxategia sortu zenean eta datu-bilketa egin zenean zegoen helburua edo helburuak lortzeko asmoarekin egiten bada trukea, eta ez bada egiten beste administrazio publiko batzuk bestelako eskumenez edo gai desberdinei buruzko eskumenez baliatzeko. Izan ere, horretarako bada, nahitaezkoa izango da berriro eskatzea adostasuna datu-lagapen edo komunikazio berri horretarako”*. Bukatzeko, Auzitegi Gorenak honakoa dio: *“Hala gertatzen da inpugnatua izan den Erregelamenduaren 28. 1 artikuluko 1. paragrafoaren kasuan, han aurreikusitako datu-lagapenaren xedea bat datorrelako asegurdun ibilgailuen fitxategi informatzailea sortzeko helburuetako batekin, eta helburu hori honakoa da: aseguru egiteko obligazioa kontrolatzea.”*

Aurreko doktrina hori erabiliz gero aztertzen ari garen kasuan, Bulegoak ateratzen duen ondorioa da kontsultako datu komunikazioa badagoela jasota aipatu dugun artikulua egiten duen aurreikuspenean.

Eta hori hala dela argi dago Euskal Autonomia Erkidegoko Merkataritza Agenteen Elkargoen eta Elkargoaren Kontseilu Nagusiaren Estatutuak eta Espainiako Merkataritza Agenteen Elkargoen eta Elkargoaren Kontseilu Nagusiaren estatutuak irakurrita.

Azken aipatu ditugun estatutuen 3.2 c) artikulua dio honako baldintza hau bete behar dela merkataritza agentearen titulua eskuratzeko: *“Kontseilu Nagusiak deitutako gaitasun proba gainditzea. Azterketaren gai-zerrenda Industria, Turismo eta Merkataritza Ministerioak onartu behar du lehendabizi, Merkataritza Politikako Zuzendaritza Nagusiaren bitartez, eta Espainiako Merkataritza Agenteen Elkargoak proposatuta luzatuko du Merkataritza Agenteen titulua, elkargokide izateko nahitaezkoa baita”*.

Bestalde, Estatutu horien 4. artikulua xedatzen du zein den elkargokide egiteko prozedura, eta, besteak beste, dio elkargokide izateko eskabidea dagokion elkargoan aurkeztu beharko dela, eta elkargoak berriazko ebazpena eman eta elkargokide izateko eskabide aurkeztu eta hurrengo hilabetearen barruan jakinarazi beharko dela esanez bukatzen da artikulua. Guretzat kontuan hartzekoa da, hain zuzen ere zera dioelako: *“Elkargoek helaraziko dizkiote Kontseilu Nagusiari errolda orokorrean jasotzeko onartzen dituzten elkargokidetzeko eskabideak”*.



Azken finean, eta "lan egiteko moduak" irakurrita, eta elkargoei eta Kontseiluari esleitutako eginkizunak eta bakoitzaren estatutuak aztertu ondoren, Bulegoak ateratzen duen ondorioa da galderan aipatzen den datu-komunikazioak baduela tokia DBLOren 21. artikuluan, eta, beraz, ez dela beharrezkoa titularren adostasuna datuak lagatzeko.

Esandakoa berresteko, DBLOren 11.2 c) artikulua halako datu-komunikazioen gainean dioena ere hartu behar da kontuan, hau da, ez dela datuen titularren adostasunik behar *“Tratamendua askatasunez eta modu legitimoan onartutako harreman juridikoen ondorio izan eta harreman horiek garatzeko, betetzeko zein kontrolatzeko nahitaezkoa denean tratamendua hirugarrenen fitxategiekin konektatzea. Halako kasuetan, komunikazioa egitea zein xedek justifikatu eta xede hori betetzen duen heinean bakarrik izango da legitimoa”*.

Bulegoaren iritziz kontsultan egindako galderan planteatutako kasua oso ondo uztartzen da artikulua horretan jasotako aurreikuspenarekin, elkargokide izan nahi duen datuen titularren eta elkargoaren arteko harreman juridikoa argitzeko nahitaezkoa delako datuen titularren datuak tratatzea eta datu pertsonalok Kontseiluari jakinaraztea; hartara, Kontseiluak Estatutuak agintzen dizkion eginkizunak burutu ahal izango ditu.

#### IV

Hirugarren galderan egiten den itauna da ea elkargokideari jakinarazi egin behar zaion bere datuak Kontseiluari lagako zaizkiola.

Hori ebazteko DBLOren 5. artikulua dioena hartu behar da kontuan.

15/1999 Lege Organikoaren 5.1 artikulua berez ukituak informatu egin behar direla dio nahitaez, haien datu pertsonalak bildu egiten direlako. Horrez gain, dio *“informazio horren hartzaileen berri”* ere eman behar zaiela, hau da, datuen hartzaileak zein izango diren esan behar zaiela. Hala dago jasota artikulua a) letran *in fine*.

Bestalde, 5.4 artikulua dio nahitaez eman behar dela 5.1 a) artikuluan xedatutakoaren gaineko informazioa datuak ez badira ukituengandik jasotzen besteak beste, eta hiru hilabeteko epean datu bilketa egiaztatu egin behar dela, geroago komunikatzeko asmoa dagoenean izan ezik, halakoetan, 27.1 artikulua dioenez, nahitaezkoa delako informatzea komunikazioa egin baino lehen.

Horretaz gain, 5.5 artikulua zera dio lehenengo paragrafoan: *“Aurreko idatz-zatian xedatutakoa ez da aplikatuko, legeren batek esanbidez horixe ezartzen duenean, tratamenduak xede historiko, estatistiko edo zientifikoak dituen, edo Datuak Babesteko Agentziaren zein horren pareko autonomia-erkidegoko erakundearen arabera ezinezkoa denean interesdunari informazioa ematea, edo neurritz kanpoko*



*ahaleginak egin behar direnean, interesdunen kopurua, datuen antzintasuna eta izan daitezkeen konpentsazio-neurriak kontuan hartuta”.*

Edozelan ere, argi utzi behar da artikulua aipatzen duen salbuespena “aurreko lerroaldian” azaldutako kasuetan baino ezingo dela erabili, hau da, 5.4 artikuluan aipatutako kasuetan, “datu pertsonalak interesdunarengandik jaso ez diren kasuetan”.

Kasu honetan elkargo profesionalak jaso egin ditu elkargokideen datuak, beraz, ezin izango zen erabili salbuespena, eta esan egin behar dio interesdunari Kontseilu Nagusiari laga dizkiola datuak. Halakoetan ezin da baliatu DBLOren 5.5 artikuluan jasotako salbuespena.

Ikusi dugunez, aztertzen ari garen lagapena ez dago lege batean ere jasota, baina DBLOren 21. artikulua (bai eta 11.2 c artikulua ere) onartzen du, Estatutuetan aurreikusitako erregimenari dagokionez.

Ondorioz, 15/1999 Lege Organikoaren 5.5 artikulua ezargarria izango balitz ere — baina jada esan dugu ez dela ezargarria—, ez ziren beteko artikulua horretako salbuespena ezartzeko betekizunak, ez dagoelako datuak lagatzeko berriazko lege gaikuntzarik.

Elkargo profesionala da informatzeko betebeharra bete behar duten subjektua eta komunikatu beharreko datuen titularrei esan behar die zen diren elkargoaren fitxategietako informazioaren hartzaileak.

Azkenik, korporazioaren eta elkargokide egin nahi den edo elkargokidea den pertsonaren arteko harremana ikusita, esan behar da Lege Organikoaren 5.5 artikuluan jasotako salbuespena ezin izango da ezarri, informatzeko betebeharra gauzatzea ezinezkoa den kasuetan edo neurritz kanpoko ahaleginak egin behar direnen kasuetan.

## V

Azken galderari dagokionez, esandako guztiak kontuan hartuta eta Bulegoaren eskumenaren helmena ikusita, ezin dugu horren gaineko irizpenik eman.

## ONDORIOAK

Fitxategiaren xedea Elkargoaren eta elkargokide izan nahi duten edo elkargokide diren pertsonen arteko harremana mantentzea, garatzea, betetzea eta kontrolatzea bada, Elkargoa da kontsultak itxura batean aipatzen duen fitxategiaren arduraduna, irizpen honen kontuan hartzeko II. atalean adierazitako baldintzak kontuan hartuta.



Ez da beharke titularren adostasunik datuak Elkargoari lagatzeko, irizpen honen kontuan hartzekoen II. atalean adierazitako baldintzak kontuan hartuta.

Elkargoak du datuen titularrei datu lagatzeen berri emateko obligazioa.

Vitoria-Gasteizen, 2012ko ekainaren 18an